AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

3857

EBAZPENA, 2012ko abuztuaren 24koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, agentzia horretan lan-kontratudun langile gisa jardungo duten bederatzi langileren lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuak gainditu dituztenen behin betiko zerrenda argitaratzen duena.

2011ko abuztuaren 31ko Ebazpenak aldatutako 2011ko urtarrilaren 10eko Ebazpenaren bitartez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak agentzia horretan lan-kontratudun langile gisa jardungo duten bederatzi langilerentzako lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuen deialdia egin zuen.

2012ko uztailaren 16ko eta abuztuaren 6ko Ebazpenen bitartez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak agentzia horretan lan-kontratudun langile gisa jardungo duten bederatzi langilerentzako lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuen behin-behineko azken kalifikazioak argitaratu zituen, eta hamar (10) egun naturaleko epea ireki zuen interesdunek bidezkotzat jotzen zituzten erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak aztertu eta ebatzi dira.

Horren ondorioz, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2.c) eta 14.4 artikuluetan, eta martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuak onartutako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamenduaren 11.1.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lan-kontratudun langile gisa jardungo duten bederatzi langilerentzako lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesua gainditu duten hautatutakoen behin betiko zerrendak argitaratzea (I. eranskina).

Bigarrena.– Hogei (20) egun naturaleko epea ematea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian lan-kontratudun langile gisa jardungo duten bederatzi langilerentzako lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuen deialdia egiten duen 2011ko abuztuaren 31ko Ebazpenak aldatutako 2011ko urtarrilaren 10eko Ebazpenaren I. eranskineko 9. 1 atalak eskatzen dituen dokumentuak aurkezteko.

Administrazio-bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsoa jarri eta hiru hilabeteko epean ebazpenik ematen ez bada, errekurtsoa ezetsi egin dela ulertuko da, eta administraziorekiko auzietako bidea zabalik gelditzuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 24a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.

I. ERANSKINA

HAUTATUTAKOEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Plangintza eta Ebaluazioko arduraduna:

Noemi de la Fuente Pereda.

Koordinazio Teknikoko arduraduna:

Noemí de la Fuente Pereda.

Garapenerako Lankidetzako teknikariak:

Nagore Gorostiza Mendia.
Maite Garmendia Eguinoa.
Ainara Arrieta Archilla.
María Pilar Diez Arregui.
Noemí de la Fuente Pereda.

Genero berdintasuneko teknikaria:

Edurne Bengoechea Sorozabal.